



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2016.12.20an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko abenduaren 20an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkuretako aktak onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU 2016ko azaroaren 8an eta abenduaren 1ean egindako bilkuretako akten zirriborroak.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2016ko Aurrekontu Orokorraren jarraipena

Hasteko, kontu-hartzaileak 2016ko Aurrekontu Orokorraren exekuzio egoeraren berri eman du.

Jarraian, lehendakariak onartutako presazko gastu baten berri eman du kontu-hartzaileak: METALJOBS enpresari esleitutako Epeleko zabortegiko HITACHI induskatzeko makinaren presazko konponketari dagokiona, 18.567,03 €, BEZ barne.

Gobernu Junta jakinaren gainean geratu da.

2.2.- 2017ko Aurrekontu Orokorra eta Plantila Organikoa onartzea

2017. ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren behin betiko zirriborroa aurkeztu du kontu-hartzaileak.

Idazkariak esan du Mankomunitateko Estatutuen 25. artikulua araberako Aurrekontu Orokorra onartzeko gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Hasierako onespina ematea Mankomunitateak 2017. ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari, kapituluaren arabera ondorengo laburpenarekin:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Pertsonal gastuak	2.495.394,31 €
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	6.041.995,51 €
3	Finantza gastuak	101,00 €
4	Transferentzia arruntak	364.950,00 €

6	Inbertsio errealak	3.179.060,00 €
7	Kapital transferentziak	0,00 €
8	Aktibo finantzarioak	10.821,00 €
9	Pasibo finantzarioak	0,00 €
	GASTUAK GUZTIRA	12.092.321,82 €

SARREREN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak	0,00 €
2	Zeharkako zergak	0,00 €
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.749.966,88 €
4	Transferentzia arruntak	7.147.204,29 €
5	Ondarezko sarrerak	19.001,00 €
6	Inbertsioen salmenta	255.500,00 €
7	Kapital – transferentziak	840.701,99 €
8	Aktibo finantzarioak	360.387,66 €
9	Pasibo finantzarioak	1.719.560,00 €
	SARRERAK GUZTIRA	12.092.321,82 €

2. Aurrekontua gauzatzeko araua onartzea.
3. Pertsonal Batzordeak proposatutako 2017. urterako Plantila Organikoa ere Aurrekontuarekin batera onartzea.
4. Aurrekontuaren espedientea 15 lanegunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartutzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.

2.3.- 2017ko lan egutegiak onartzea

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU langileen ordezkariekin negoziatutako 2017. urterako lan-egutegiak. Honako hauek dira:

- Zerbitzu Orokorretako langileen egutegia.

- Ingurumen Zerbitzuko langileen egutegiak:
 - Bulegoetako langileak.
 - Etxeko hondakin bilketa zerbitzuko langileak.
 - Garbiguneetako langileak.
 - Epeleko Zabortegiko langileak.

- Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko langileen egutegia.
 - Orokorra.
 - Turismo Teknikarien banakako egutegia.

2.4.- 2017ko Gobernu Juntaren ohiko bilkuren egutegia onartzea

Aho batez ONARTU DA Gobernu Juntak 2017. urtean egingo dituen ohiko bilkuren egutegia. Honako hau da:

Urtarrilak 17
Otsailak 14
Martxoak 14
Apirilak 4
Maiatzak 9
Ekainak 13
Uztailak 11
Irailak 12
Urriak 10
Azaroak 14
Abenduak 19

2.5.- Hainbat aseguru-poliza egiteko kontratu txikia

Ondoren zehaztutako aseguru-polizak egiteko aurkeztutako eskaintzei buruzko idazkariaren txostena ikusirik, eta kontuan izanda azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 138.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau kontratu txikia dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gastua onartzea, eta MAPFRE ASEGURUAK enpresari urtebetez, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31arte, ondorengo aseguru-polizak egiteko kontratu txikia esleitzea guztira 10.387,17 €-ko prezioan, bere proposamenean zehaztutako baldintzetan:
 - Hiltegiko kalteen aseguru-poliza.
 - Zaldibar eraikineko kalteen aseguru-poliza.
 - Meatzerreka garajeko kalteen aseguru-poliza.
 - Erantzukizun zibilaren aseguru-poliza.

2.6.- Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko kontratazio espedientea

Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

2.7.- Foru Kontratazio Zentrala: telefono komunikazioen espedienteari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, telefono komunikazioen zerbitzuaren kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek zerbitzu hori kontratatu behar duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Telefono komunikazioen zerbitzua emateko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
3. Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari erakunde honen datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.

2.8.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten diren behin betiko bermeak itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Aipatu bermeak itzultzea:

1.- Enpresa: OLAONDO, S.A.

Kontratua: Trakzio buru batez hornitzea (2015)

Zenbatekoa: **5.500 €.**

2.- Enpresa: RENAULT TRUCKS ESPAÑA, S.L.

Kontratua: Hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea (2013)

Zenbatekoa: **74.059 €.**

3.- Enpresa: ARRIZABAL ELKARTEA, S.L.

Kontratua: Trinkotzeko bi makinaz hornitzea (2014)

Zenbatekoa: **870 €.**

4.- Enpresa: CONTENUR, S.L.

Kontratua: Edukiontziz hornitzea (2014)

Zenbatekoa: **1.175 €.**

2.9.- 2015eko auditoria txostena

Kontu-hartzaileak eta idazkariak 2015. ekitaldiari dagokion auditoria txostenaren berri eman dute, ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L. enpresak egindakoa. Txostenaren kopia osoa Gobernu Juntako kide guztiei bidali zaie.

Gobernu Junta jakinaren gainean geratu da.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Etxean erabilitako olio biltzeko kontratazio espedientea

Etxean erabilitako olio biltzeko eta horretarako edukiontziak garbitu eta mantentzeko, eta ontziz hornitzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.2.- Lurpeko edukiontzia mantentzeko kontratazio espedientea

Gai hau mahai gainean uztea erabaki da.

3.3.- Epele zabortegiko isurketa gelaxkaren 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrerarako detailezko proiektua idazteko, obren zuzendaritzarako, segurtasun eta osasun koordinaziorako eta ingurumen aholkularitzarako kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena.

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko urriaren 18an egindako bilkuran, Epeleko zabortegiko isurketa gelaxkaren 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrerarako detailezko proiektua idazteko eta, hala badagokio, obra zuzendaritza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza kontratatzeko espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean bi proposamen aurkeztu ziren, biak onartuz:

1. ASTIV INGENIERÍA, S.L.P.
2. HIRIGINTZA, S.A.

2 gutun-azalean jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, 3 gutun-azaleko proposamen ekonomikoa ireki ditu Kontratazio Mahaiak eta eskaintzak segida beharokorrean sailkatu ditu, Administrazio-Klausula Berezien Agirian jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Eskaintzen ondorengo sailkapena onartzea:

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Memoria Teknikoa</u> 50 puntu	<u>Proposamen Ekonomikoa</u> 50 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	HIRIGINTZA, S.A.	49	50	99
2	ASTIV INGENIERÍA, S.L.P.	27	30,91	57,91

1. Sailkapen honen arabera, HIRIGINTZA, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, 1 gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta behin betiko bermea aurkezteko.

2. tratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.4.- Behin behineko informatzaileen izendapen proposamena

Lander Arregik, Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, esan du datorren urtarrilaren 31ean bukatzen zaiela gaur egun dauden informatzaileei behin behineko izendapena, baina hainbat lan dagoenez egiteko, oraindik bi edo hiru informatzaileen aldi baterako beharra izango dela, aztertzen ari direla. Idazkariak jarraian egindako aldi baterako izendapen hauen arriskuaz ohartarazi du.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; hainbat eskaera berri eta luzapen bat

- Eskaera berria; A. A. A.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren industri modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da; metrologia industrialak garatzeko izango da.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- A. A. A. andreari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (8-IM) industri modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Eskaera berria; S. I. G.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da; Reik kontsultarako izango da.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, eta kontuan izanda eskaera honek Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 5garren artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu duela, 25 puntu lortu baititu, baina une honetan ez dagoela zerbitzu modurik libre, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- S. I. G. andrearen eskaera itzarote-zerrendan uztea.

- Eskaera berria; Z. A. J.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da; enpresen kapitalizaziorako eta hazkunderako aholkularitza emateko izango da.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, eta kontuan izanda eskaera honek Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 5garren artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu duela, 36 puntu lortu baititu, baina une honetan ez dagoela zerbitzu modurik libre, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- Z. A. J. andrearen eskaera itxarote-zerrendan uztea.

- Luzapena; R. C. S. (ARAZI)

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko urtarrilaren 15era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 6-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, R. C. S. andreari emana, Gobernu Juntaren 2014ko azaroaren 27ko erabaki bitartez.

4.2.- Behin behineko funtzionarioen izendapen proposamenak

Garapen Agentzia Batzordearen irizpen txostenak irakurri dira. Txosten hauetan 2017. urtean Agentzia Zerbitzuak, beste Administrazio batzuen finantzazioarekin, kudeatuko dituen hainbat programa garatzeko bi teknikariren eta lanaldi erdiko administrari baten beharra planteatzen da.

Idazkariak esan du bitarteko funtzionario hauek Agentzia Zerbitzuko behin behineko programa edo lan zehatzak egiteko izan behar dutela, eta jarraian egindako aldi baterako izendapen hauen arriskuaz ohartarazi du.

Gobernu Juntak, Garapen Agentzia eta Pertsonal Batzordearen proposamenak jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU.

1. Mankomunitateak lan hauetarako duen lan poltsa erabiliz, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte bi teknikari bitarteko funtzionario izendatzea, 2017. urtean Garapen Agentzia Zerbitzuak garatu beharreko ondorengo programak garatzeko:

- Bat, "Debagoiena Eraldatzen" (Lehiakortasuna eta lurralde kohesioa + Pertsonekin eta lurraldearekin konpromisoa duten enpresak) deialdiaren barnean Foru Aldundiak onartutako proiektuak garatzeko, eta bestea, "Hazilan", "Txertatu merkatuan" eta "Degoiland" proiektuak garatzeko. Hileko ordainsari gordina 2.260,79 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:

- Soldata: 931,12 € (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,28 € (18)

- Berriazko osagarria: 931,39 €.
2. Agentzia Zerbitzuko lanaldi erdirako administraria den Naiara Aranburu 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte beste lanaldi erdirako bitarteko funtzionario izendatzea “Hazilan”, “Txertatu merkatuan” eta “Degoiland” programak garatzeko lan administratiboak egiteko. Hileko ordainsari gordina 1.099,92 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
- Soldata: 356,56 € (C1)
 - Lanpostu-mailako osagarria: 187,41 € (17)
 - Berriazko osagarria: 555,95 €.

4.3.- Bisita Gidatuen Zerbitzua emateagatiko Ordenantza Fiskalaren tarifak aldatzea

Bisita Gidatuen zerbitzua emateagatik kobratu beharreko tasak aldatzeko proposamena ikusita.

Eta txosten tekniko-ekonomikoa ikusirik, Gobernu Juntak, aho batez, zera ERABAKI DU:

- 1.- Aipatu Ordenantza Fiskala aldatzeko espedienteari hasierako onespena ematea.

Ordenantza honen tarifa eranskina aldatzea, honela geratuko delarik finkatuta:

1. **“Ezagutu Debagoiena” egitarauaren barnean** egiten diren bisita gidatuak direla eta:
 - Egun erdiko bisitak: 1,5 €/pertsona.
 - Egun osoko bisitak: 2,5 €/pertsona.
2. **Arantzazuko Santutegiko bisitak.** Bisita bakoitzeko:
 - Tarifa orokorra: 2,5 €/pertsona.
 - 16 urtez beherakoak: 1,5 €/pertsona.
 - 10 lagunetik goragoko taldeak: 2 €/pertsona.

Ezarritako orduetatik kanpoko taldeak bisitan datozenean, gutxienez 18 € kobratuko zaizkie taldeko.

2.- Erabaki hau eta horretarako bideratutako espedientea informazio publikorako aurkeztea 30 lanegunez, interesatuek aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Hasierako erabaki hau, beste erabakirik hartu beharrik gabe, behin betiko onartutzat ematea, erreklamaziorik ez bada aurkezten.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

16/110.- 1.- “Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua” gauzatzeko obra kontratua CESPА GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresari esleitzea 382.199,45 €-ko prezioan, gehi BEZ.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Bizkaiko Eraikuntza Sektoreko hitzarmen kolektiboa (48000715011981 hitzarmen kodea), eta Bizkaiko Errepide-Garraioko Enpresentzako eta Garraioko Laguntza-Jarduera Osagarrietarako 2010. urtetik 2016. urtera bitarteko hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaizkie.

16/111.- - R. G. aurkeztutako eskaera bere osotasunean onartzea, eta A1 taldean burututako hiru urteko arengatik dagozkion atzerapenak ordaintzea, guztira 691,96 €.

16/112.- - O. G.k aurkeztutako eskaera onartzea, bere jardunaldi erdiari dagozkion orduak pilatuz.

16/113.- - K. I. funtzionarioaren egun erdiko lanaldi murrizketa 2017ko abenduaren 31 arte luzatzea.

16/114.- 16/36 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMAR MILA SEIEHUN ETA BOST EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (30.605,48 €).

16/115.- 16/37 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HIRU ZENTIMO (26.665,03 €).

16/116.- 1.- M. S. R kontratatzea azaroaren 10ean, 17an eta 18an D. G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, azaroaren 21ean eta abenduaren 9tik 12ra eta 16tik 19ra A. U.rena, eta azaroaren 28tik abenduaren 7ra M. E.rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

2.- X. A. B. kontratatzea azaroaren 14tik aurrera lanpostuaren titularra den J. C. O., Ezintasun Iraunkor Osoko egoeran deklaratu izan dena, bere lanpostura bueltatu arte, bere ezintasunaren berrikuspen baten ondorioz, eta bueltatuko ez balitz, lanpostu hau behin betiko bete arte, dagokion hautaketa prozesua bukatu ondoren, edota, lanpostu hau kentzea erabaki arte. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J. R. A. kontratatzea zamaketari bezala ondorengo lanak egiteko:

- Azaroaren 14tik 18ra, Balerion 10 litroko edukiontzia egokitzeko.
- Azaroaren 28tik abenduaren 2ra, lan pilaketagatik.



- Abenduaren 7an eta 9an, Arrasateko organikoaren ibilbide komertziala egiteko.
- Abenduaren 12tik 14ra, Oñatiko esekitokiak garbitzeko.
- Abenduaren 15ean eta 16an, J. E. ordezkatzeko.

Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- J. O. G. kontratatzea azaroaren 21ean I. A.ren ordezkapena egiteko, abenduaren 5etik 12ra J. D. L. T.ena, eta 10ean, 17an eta 18an D. G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, azaroaren 21ean eta abenduaren 9tik 12ra eta 16tik 19ra A. U.rena, eta azaroaren 28tik abenduaren 7ra M. E.rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

5.- M. E. C. kontratatzea azaroaren 21ean J. A. Epeleko zabortegiko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- M. A. E. kontratatzea azaroaren 25ean M. E.ren ordezkapena egiteko, azaroaren 28an, 30ean eta abenduaren 1ean, D. G.ena, abenduaren 2an, 9an eta 10ean, A. L.rena eta abenduaren 21etik urtarrilaren 5era J. A.rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

7.- M. Z. B. kontratatzea azaroaren 28tik aurrera bete gabe dagoen gidari-zamaketari lanpostu bat behin betiko bete arte dagokion prozedura jarraitu ondoren, edota, lanpostu ahu kendu arte, hala erabakiko balitz. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

8.- A. A. G. kontratatzea azaroaren 28tik abenduaren 2ra J. J. zamaketariaren ordezkapena egiteko, eta abenduaren 5etik 7ra S. C. zamaketariarena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

9.- G. I. A. kontratatzea abenduaren 7tik 9ra M. L.ren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

16/117.- 16/38 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (291.923,91 €).

16/118.- 16/39 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA BERROGEITA BI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMO (242.345,43€).

16/119.- 16/40 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMABOST MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA HAMAR ZENTIMO (15.785,90 €).

16/120.- 16/41 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMABI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMO (12.739,66 €).

16/121.- 16/42 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (197,64 €).

16/122.- 1.- J. O. G. kontratatzea abenduaren 13tik aurrera J. E. txoferraren ordezkapena egiteko bere gaixotasunagatiko bajaldia bukatu arte. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- E. A. I. kontratatzea abenduaren 14tik 30era arte Garbiguneko zaintzaile lanpostuaren zereginak ikasi eta D. G. eta J. L. M.ren hainbat ordezkapen egiteko. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

6.- GALDE-ERREGUAK

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.